

## ZER DA MAILEGU BAT?

Mailegua finantzaketa-produktu bat da. Horrek esan nahi du bankuak diru kopuru bat uzten dizula. Gero zuk itzuli egin behar duzu diru hori pixkanaka, normalean, hilero.

### **Zer ordaintzen da hilero?**

Hilero hau ordainduko duzu:

- Kontratuan adostu duzun diru-kopurua (kuota).
- Maileguaren interesak.

Batzuetan, beste gastu batzuk ere ordaindu behar dira. Horregatik, oso garrantzitsua da mailegu bat kontratatu aurretik baldintza guztien informazioa jasotzea.

### **Non kontrata daiteke mailegu bat?**

Oro har, finantza-erakundeetan, banku batean, adibidez kontrata dezakezu mailegu bat.

Eta diru hori nahi duzunerako erabil dezakezu.

Baina erosketa bat egin behar duzunean ere mailegu bat eska dezakezu.

Adibidez, etxetresna elektriko bat erosten duzunean edo altzari bat, eta epeka ordaintzea eskaintzen dizutenean.

## **Eta nola funtzionatzen du maileguak dendan?**

Mailegua dendan eskatzen baduzu,  
haiek arduratzen dira guztiaz.

Zure egoera ekonomikoa berrikusten dute  
eta ordaintzeko hainbat aukera eskaintzen dizkizute.

Zeuk erabakitzen duzu zenbat denbora beharko duzun itzultzeko  
eta zenbat ordainduko duzun hilero.

## **Garrantzitsua da maileguaren baldintzak ondo aukeratzea**

Mailegu bat kontratatzen duzunean,  
garrantzitsua da hauek ondo erabakitzea:

- zenbat ordainduko duzun hilero,
- eta zenbat denboran itzuliko duzun.

Sinatu aurretik informazio guztia eman behar dizute  
gastuei, interesei  
eta maileguaren baldintzei buruz.

Horrela, kalkuluak egin ditzakezu  
eta ondoen datorkizun kuota aukeratu.

## **Nola itzultzen da mailegu bat?**

Mailegua itzultzeko hau egin dezakezu:

### **HILERO KUOTA BAT ORDAINDU**

Kuota handiagoa bada,  
mailegua denbora gutxiagoan itzuliko duzu.  
Horrela interes gutxiago ordainduko duzu.

### **ZATI BAT DENBORA BAINO LEHEN ITZULTZEA**

Zati bat denbora baino lehen itzultzeko,  
kopuru horrek izan behar du  
2 kuoten batura baino handiagoa.

Hau da, hilean 500 € ordaintzen baduzu,  
eta zati bat denbora baino lehen ordaindu nahi baduzu,  
kopuruak 1.000 €-tik gorakoa izan behar du.

Aldez aurretik bankuari idatziz jakinarazi behar diozu.

### **DIRU GUZTIA BAT-BATEAN ITZULTZEA**

Mailegu osoa kolpetik itzultzeak  
aparteko gastuak izan ditzake.

Horregatik, garrantzitsua da ondo informatzea  
mailegu bat kontratatu aurretik.

Horrela erabakirik onena hartu ahal izango duzu.